

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2012ko otsailaren 28a. IX. urtea. 2.369. zenbakia. tolosaldea.hitza.info




Munduko txapelketa irabazi duen Ibarako talde mistoa, podiumean. HITZA

Ibarako sokatira talde mistoak munduko txapelketa irabazi du

Eskozian jokatu dute 8x8 goma gaineko munduko txapelketa; Ibaratik guztira 26 tiratzaile joan dira, eta lau mutilek eta lau neskek osatutako taldeak lortu du urrezko domina, Abadiño-Badaiotzen aurka 07

Sahararentzat autodeterminazioa eskatu dute, beste behin, eskualdean

«Espainia da sahararrek dugun egoeraren errudun nagusia», esan du Mohamed Salem Bouaamoud saharar ekintzaileak 03



Mohamed Salem Bouaamoud, Tolosako udaletxearen aurrean. I. TERRADILLOS

EAJk Larramendiko aferan partaidetza prosezuko arauak ez adostea leporatu dio Bilduri

Tolosako auzoaren erreferenduma gelditzeko eskatu dute jeltzaleek 02

80 parte hartzaile inguru, Tolosako I. Txakurkrosean

Pedro Etxeberria eta 'Zura', irabazleak 05



Stock Azoka
Kursaalean

Otsailak 27tik martxoaren 2ra

Bertan izango gara

Errementari Kalea, z/g
TOLOSA • Tel.: 943 67 16 30





Tolosako EAJren sei zinegotzik eman dute prentsaurrekoa. I. GARCIA

Larramendiko urbanizazioari buruzko erreferenduma gelditzea eskatu du EAJk

«Partaidetzan sinesten badute, ez diezaiela bizkar eman auzo berri honetako tolosarrei», eskatu dio Bilduri

Imanol Garcia Landa

Larramendi auzoan aurreikusita zegoen errepidearen lurperatzea egitea, eta proiektu horren eta udalak proposatutako beste proiektuaren arteko erreferenduma bertan behera uzteko eskatu dio EAJk udal gobernariari. «Abian jarri duen prozesu hau gelditu dezala kalte handiagoak sortu aurretik, eta partaidetzan sinesten badute, ez diezaiela bizkar eman auzo berri honetako tolosarrei», esan du Tolosako alderdi jeltzaleak.

EAJk Larramendi errepidearen lurperatzearen alde azaldu da beste behin, proiektua indarrean dagoela esan du, eta Bilduri proiektu horri helegitea ez aurkezte leporatu dio: «Bildu ez badago ados urbanizazioarekin, helegitea aurkeztu ahal izan zuen urbanizazio proiektua onartu zenean, eta ez zuen egin». Bestalde, Voith-Gorostidi proiektua indarrean dagoen plan orokorrak

«arautzen eta babesten» duela esan dute jeltzaleak, eta, beraz, «ez du segurtasun juridikorik behar planeamendua aldatuz». Bildu «aldez aurretik babes juridikoa duen aktuzio bati segurtasun juridikoa berrematen» dabilera gaineratu dute.

Ezker abertzaleak epailearen aurrean obrak gelditzea «hirutan» eskatu duela eta 100 etxebizitza libreen lehen erabilerarako baimenari ere helegitea jarri ziola kritikatu du EAJk. «Ezker abertzalearen eskaera epailetan ez zuten inolako eraginkortasunik izan eta epaileak atzera bota zituen. Pauso hauek noren kalterako burutu ziren?», galdetu dute.

Auzoko zenbait bizilagunen egonezina «gutziz ulergarria da» esan dute: «Egun 550 familiak salerosketako eskriturak edo kontratuak dituzte sinatuak. Bizilagun horiek baldintza eta ezaugarri batzuk direla medio erosi dute etxebizitza eta bere barnean zegoen Larramendi kalea lurperatzea».

EAJren ustez, Bildu «egokiera irizpidea kontuan hartu gabe» jokatzeko ari da. Erreferendumarekin «aurrekusten ziren zenbait aktuzio geldiaraziko ditu, besteak beste, Voitheko etxebizitza zaharrak botatzea, Arkaute plaza

birgaitzea edota sortzen den plaza berria eraikitzea». Voith-Gorostidi eremuko proiektua Bilduk «demonizatu» duena dela esan du EAJk, eta «derrigorrez gelditu» behar duela gaineratu du.

Partaidetza inguruko kritikak ere plazaratu dituzte jeltzaleak: «Bildu partaidetza prozesu bat jarri nahi badu abian, ezin du berau jarri joko zelaiaren arauak berak inposatu; partaidetza abian jartzeko gutxienez bizilagunekin adostu behar da, bestela ez du inolako aitorzarik». EAJren ustez badira beste proiektu batzuk, zeinetan Bilduk «bere logikak» partaidetza prozesu bat ireki beharko lukeen, eta «partaidetza aldetik baztertu egin dituzte», esan du. Euskal Herria plaza etxebizitzak eta Berazubiko haur eskolaren lurzoruari buruzko proiektuak aipatu dituzte. Bestalde, erreferendumaren gaiarekin arriku bat ikusten du EAJk: «Partaidetza prozesu batek lagunduz egin behar du auzoko harreman sarea tinkotzen. Errezeloa dugu oraingo honetako emango duela auzo berri eta gazte hau bitan banatzeko».

Hondakinen gaia ere aipagai

Prensaurrekoan, EAJk hondakinen gaiari buruz ere aipamen bat egin nahi izan zuen, aurreko astean Bilduko hainbat udalek atez atekoaren alde egingo dutela azaldu eta gero. «Engainatuta» sentitu direla esan dute EAJkoek: «Aurreko udal batzarrean gaiaren inguruko batzordea osatuko zela adostu genuen; ez da osatu eta hedabideetatik jakin dugu Tolosa atez atekoa onartzeko asmoa duela. Guretzako hau inposaketa bat da».

● **Prensaurrekoan** irakurritako testu osoa ikusi daiteke albiste honen batera, tolosa.hitza.info-ko papereko edizioan.

Fama txarreko animalia



Bioinformatik
Jon Ander Galarraga
Biologoa

Bada animalia bat, gizakia-ri izugarritzko beldurra eta egonezina sortzen diona, batez ere euskaldunei. Animalia gaixo hauek bibliak eta pulpitueta «egiak» esaten dituzten pertsonak, berebiziko fama txarra eman diete. Animalia honetako, Eva deritzan emakume bati, sagarondo magiko baten sagar debekatu bat eskaini omen zion eta sagarondoko jabea asko haserretu omen zen. Nonbait sagarondoaren jabea, sagardogilea zen ofizioz eta ez zion batera graziarik egin bere sagarondoko sagarrak ostutzea!

Animalia pozoitsuak dira, hozka egiten dute, lurrean arrastaka dabilte, «shhh...!!!» moduko zarata berezi bat egiten dute... Ez da harritzekoa beraz, fama txarra izatea. Jada ene irakurleek jakingo dute sugeez ari naizela eta artikulua xume honen helburua sugeen aurkako beldurra ezabatzeko saiakera bat dela.

Sugeak narrastiak dira, dorka, sugandila eta muskerren antzera, baina sugeak hankarik gabeko narrastiak dira. Orain milioika urte, musker bati lur azpian bizitzea otu zitzaion eta hanke nonbait enbaraz egiten ziotelako, hankarik gabe bizitzeko ikasi zuen, zenbait suge oso gertutik aztertzen baditugu, gorputzaren erdialdean hankatxo txiki batzuk ikusi ahal dira. Beraien gorputza luzatu egin zen, mugimendua hankekin egin ordez, gorputz guztiaren zig-zag batekin mugitzen zuen eta lur barnean ederki moldatzen ziren arren, lur gainean ibiltzeko ere ez zuen arazorik.

Sugeak ugaztun eta hegazti txikiek elikatzen espezializatu ziren: sagu, satain, ugaztun handien kumeak, txori txikiak... Sugeak badakite ugaztun eta hegaztiak odol beroa dutela eta gai dira animalia hauek igortzen duten berotasuna sudurraren bidez atzemateko, lur azpian zein iluntasun gordinean.

Hau gutxi balitz, sugeak gai beraien biktimak urrunetik dastatzeko. Guk oilako errea dastatzeko ahoan sartu behar dugu nahi eta ez, baina sugeek

ez. Nahikoa dute mihia ateratzea urrunean duten biktimaren zaporea nabaritzeko, modu honetara jakiten dute ea zein animalia den, gaztea ala zaharra den eta osasuntsu dagoen. Ezauzgarri guzti hauek atzeman ostean erabakitzen dute animalia hori harrapatzea komeni den ala ez; animaliek ez dute alferrikako lanik egiten!

Beraien isiltasunarekin, abiadurarekin eta pozoiarekin biktima harrapatu ostean zuzenean irentsi egiten dute, soilik bi hagin baitituzte, hauek pozoia sartzeko xiringa moduak dira eta ez dute balio murtzikatzeko. Sarritan biktimak sugearen ahoa baituzten pertsonak, berebiziko fama txarra eman diete. Animalia honetako, Eva deritzan emakume bati, sagarondo magiko baten sagar debekatu bat eskaini omen zion eta sagarondoko jabea asko haserretu omen zen. Nonbait sagarondoaren jabea, sagardogilea zen ofizioz eta ez zion batera graziarik egin bere sagarondoko sagarrak ostutzea!

Euskal Herrian bi suge pozoitsu ditugu, aspis sugegorria eta sugegorri kantauriarra. Biak dira pozoitsuak, kolore gorritza, buru triangeluarra, sudur txiki batekin... Nire irakasle bikain batek zioen bezala sugegorriek «gaizto aurpegi» dute.

Hauen pozoia, gizaki heldu osasuntsu batentzako ez da hilkorra, ordu batzuetan zehar nekaturik uzten du, baina ez gutxi gehiago, larrialdietara joaten bada, suero bat ipintzen dute baina ez antidotorik, beraz ez da oso larria. Haurtentzat eta gaixotasun kronikoren bat duten helduentzat arriskutsuagoak dira. Hala ere, ez beldurtu: zenbat pertsona hiltzen da urtean Euskal Herrian suge gorrien hozkadaz? Uste dut astean pertsona gehiago hiltzen dela Euskal Herrian auto istripuz, beraz izan beldur gehiago autoei sugeei baino.

Mendian suge gorri bat topatzen badugu: lasai. Utzi bere bidea egiten, pentsa sugegorri horrek guri beldur gehiago digula, guk berari baino. Gu ez gara sugegorri baten janaria, beraz ez du inolako interesik guri hozka egiteko. Hori bai, makiltxo batekin «borobiltxoak» ukitzen badizkiogu, normala da eraso egitea.

Artikulu xume honen ostean espero dut irakurleek sugeak beste begi batzuekin ikustea. Eta honelako artikulua gehiago nahi izanez gero, bioinformatik.com-en daude edo bestela eskatu niri zuzenean bioinformatik@hotmail.com edo Facebook-eko gure orrian.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Eskualdeak saharar errepublikaren sorreraren urtemugarekin bat egin du

Udaletxeetako balkoietan saharar bandera zintzilikatu dute, eta mozioa onartu euren eskubideen alde

Iñigo Terradillos

Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa sortu zen atzoko egunez, duela 36 urte. Urtemuga hori gogoratzeko eskualdeko udaletxeetako balkoietan, ikurrinarekin batera, saharar bandera ikus dezakegu zintzilikaturik egunotan. Era berean, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin bultzatuta, hainbat ekintza burutuko dituzte eskualdean, «saharar herriari batesa adierazteko».

Sahararen aldeko elkarrekin udaletxeetan saharar bandera zintzilikatzeko gonbita luzatzeaz gain, elkarretaratzerara deitu zituen atzo herritarrek Tolosan. Sahararekin elkartasuna adierazi eta euren herriarentzat independentzia eta autodeterminazioa exijitu zuten ekintza horren bidez. Halaber, eskualdeko herrietan Mendebaldeko Sahararen aldeko mozioa ari da aurkezten Tolosaldea Sahararekin elkarrekin, eta gaurkoan, Tolosaren txanda izango da. Udaltzat 19:30ean hasiko den bilkuran onartuko duen mozioarekin sahararrek pairatzen duten egoera salatuta, giza eskubideak errespetatu daitezela exijitu, eta sahararrentzat independentzia eskatuko dute.

Elkartasun maratoia

Bestalde, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren sorreraren harira, elkartasun maratoia antolatuta ohi dute Aljerian dauden errefuxiatuen kanpalekuan. Bada, ekimenarekin bat eginez, zazpi lagun abiatu ziren harantz iragan ostiralean.

Gregorio Eizagirre leaburuarra da parte hartzaileetako bat. Berak azaltzen duenaren arabera, «ekimen honekin sahararrei babes adierazi nahi diegu, eta laguntza ekonomikoa emateko ere baliatzen dugu». Horrez gain, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin proiektuak jarraipena egiteko ere baliatzen dute bidaia: «Bateatik, Tolosa anaituta dagoen Bir Lehu herrian ur biltegiak berri-tuko dira, Tolosako Udalak emandako laguntzarekin; bestetik, lurralde liberatuan azken urteetan eraiki dugun ikastetxearen proiektuarekin amaitzeko diru laguntza emango dugu; eta udan gurean izaten diren umeen familiek ingetako aukera ere izaten dugu». Ostiralean itzuliko dira basmortuko egonalditik.



Rachid Salem Abdrhman Tolosan bizi den sahararra Mohamed Salem Bouaamoud ekintzailearekin. I. TERRADILLOS

Mohamed Salem Bouaamoud • Saharar ekintzailea

«Gure egoeraren errudun nagusia Espainia da»

I. Terradillos Tolosa

Mohamed Salem Bouaamoudi «sekula» ahaztuko ez zaien irudia da marokoar polizia bere etxera sartu eta ama jipoitu eta arreba biluztu zuteneko. Saharar herriaren eskubideen eta independentziaren alde 2005. urtean hasitako ekintzen edo intifadaren erantzuna izan zen. Bouaamoudik dioenaren arabera, «gaur egun ere, Marokok etengabeko jazarpenekin jarraitzen du gobernuaren aldeko ez diren adierazpenak egiten dituztenen aurka».

36ko taldea osatu zenuen Aminatu Haidar edota Ali Salem Tamek bezalakoekin. Zein izan zen zuen helburua?

Saharar herriaren eskubideen alde egitea. Horrez gain, Marokoren esku desagertuta dauden sahararren alde ere egiten ginen. Gaur egun 500 desagertu inguru daude. Gu hasi ginen, nolabait, protesta ekintzekin.

Marokoren erantzuna berehala iritsi zen.

Aldarrikapenekin hasi eta segituan iritsi zen marokoar gobernuaren erantzuna. Sahararren etxetara sartu eta jazarpenekin hasi ziren.

Zure etxean ere sartu ziren.

Bai, eta ez dut sekula ahaztuko. Polizia etxera sartu zen, eta nire ama jo zuten, eta arreba biluztu nire begien aurrean. Nire bila etorri zen polizia. Handik espetxera eraman, eta torturatu egin ninduten. Biluztu eta metalezko barra batera lotu zituzten nire eskuak eta oinak, eta borraz bortxatuko zidatela egin zidaten mehatxu. Txiza ere egin zidaten aurpegira, eta horrela hiru egunez. Epaitu egin ninduten gero, eta marokoar bandera erre eta baimenik gabeko manifestazioak egitea egotzita, 15 urteko kartzela zigorra ezarri zidaten. Ondoren, Aaiungo espetxe beltzera eraman ninduten.

Nola lortu zenuen kartzelatik irteera?

Bertan ginen hainbat ekintzaile gose greban egon ginen 52 egunez, eta ekintza horren nahiz nazioarteko elkarrekin erakundeen presioak bultzatuta atera ginen espetxetik.

2010ean Aaiun hiriburuarren kanpalean milaka sahararrek eraiki zuten Agdaim Izik aldarrikapen kanpalekuan ere parte hartu zenuen.

8.000 haima altxatu genituen, eta denera, 20.000 lagun inguru bildu ginen han. Saharar herriaren es-

kubideen alde egitea zen gure helburua, baina Marokok, aldarrikapen horiek indarra hartzen ari zirela ikusita, deuseztatu egin zuen egun batetik bestera. Gaua zela sartu ziren poliziak eta militarrik, eta haur, gazte, heldu, emakume, ezindua... guztiak eraso zituen bortizki. Asko atxilo hartu zituzten, eta torturatuak eta bortxatuak izan ziren. Atxilotu haie-tatik 23 lagun geratzen dira oraindik espetxean. Guztira, 70 dira kartzelatan dituzten saharar preso politikoak.

Horrelako erasoak etengabeak al dira?

Iragan ostiralean, esaterako, errefuxiatuen kanpalekue-tatik zetorren familiaren zain zeuden sahararrak jipoitu eta atxilotu zituen poliziak saharar bandera eramate hutsagatik. Sahararren artean beldurra hedatu baino ez du nahi Marokok.

Espainiako Gobernuaren aldaketak itxaropenik sortzen al du zuegan?

Ez. Gure egoeraren errudun nagusia Espainia da. Marokoren eta Espainiaren artean interes handiak daude, eta hori da euren zat garrantzia duen bakarra. NBEK erreferenduma eskatzea da irten-bidea.

Altzon eta Ugarten lapurretak izan dira larunbat gauean

Altzoko jatetxean eta Amezketa-ko auzoko elkarrekin sartu direla salatuta bertako jabeek

Erredakzioa

Hainbat lapurreta izan dira aste-buruan eskualdean. Altzoko jatetxean eta Amezketa Ugarte auzoko elkarrekin, esaterako, larunbatetik iganderako goizaldean lapurretak izan direla salatuta dute.

Altzoko jatetxeko arduradunek larunbat gauean lapurrak sartu zirela adierazi dute. Lapurtutakoaren inguruko xehetasunik ez dute eman, baina taberna, jatetxe, denda edota etxetako jabeak ohartarazi nahi izan dituzte.

Bestalde, Amezketa Ugarte auzoan ere gau berean lapurreta egin zuten. Hain zuzen ere, bertako elkarrekin sartu ziren leiho bat apurtuz, eta dirua eta edaria eramantuz zituzten.

Ez dira, ordea, bi hauek azken egunetan jazo diren lapurreta bakarrak. Izan ere, egunkari honek jakin duenaren arabera, hainbat eraikin publiko, auto edo furgoneta zein etxebizitzatan lapurretak egin dituzte.

oalegi@hitza.info

Emakumearen Nazioarteko eguna dela eta, afariak egingo dituzte

E. Maiz

Martxoaren 8an Emakumearen Nazioarteko eguna izango da. Hainbat ekitaldi izango dira eskualdeko herrietan, eta besteren artean, Berastegin, Berrobin eta Ikaztegiatan afariak egingo dituzte, martxoaren 9an.

Iaz bezala, Berrobiko emakumeek Solastokin egingo dute afaria, eta txartelak salgai daude 25 eurotan. Ikaztegiatan, txartelak 15 euroren truke jarri dituzte salgai Ostatu tabernan, eta martxoaren 1a da erosteko azken eguna. Berastegin, berriz, Basurde Elkarrekin egingo dute afaria. Martxoaren 4a baino lehen izena eman beharko da: 943 68 31 51 (Kontxi) edo 943 68 33 38 (M^o Jesus) zenbakietara deituz.

Tolosa >



ATXILOKETA SALATU DUTE

Tolosako suhiltzaileek elkarretaratzea egin zuten ostiralean eskualdeko hainbat udal ordezkarekin batera (irudian) Iñaki Igarategi lan-kidearen eta Inazio Otañoren askatasuna eskatzeko. Bi andoaindarrak Guardia Zibilak atxilotu zituen eta inkomunikaturik egon diren egunetan torturatuak izan direla salatatu dute. Igarategi lanean zegoela atxilotu zuen Guardia Zibilak, Tolosako suhiltzaileen parkean. A.I.

Tolosa >



BIZIKLETAK KONPONTZEN

Tolosaldeko eta Goierriko pertsona gorren Gainditzen elkarteak bizikletak konpontzen ikasteko tailerra burutu zuen kultur etxean. Iker Amondarain izan zen ikastaroa eskaini zuena eta zeinu hizkuntzan eman zituen azalpenak. Teoriaz gain, azalpen praktikoak ere eman zituen Amondarainek. Martxoaren 24rako Done Jakue bidearen inguruko hitzaldia antolatu du elkarteak. 12:00etan izango da, kultur etxean, eta Mikel Amondarainek eskainiko du. A. IMAZ



Tolosan etxe adosatua salgai:
eguzkitsua, lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldea, bi autorentzako garajea, txokoa, jardina eta trastelekua.

Interesatuak, deitu
678 267657
telefono zenbakira.

Tolosa >



PIÑATA IGANDEAN ERE MUSIKA NAGUSI

Piñata igandea izan zen herenegun, eta, urtero bezala, hainbat musikari izan ziren herria alaitzen. Batetik, udal musika eskolako ikasleak (lehen irudia) zortzigarren aldiz atera ziren, eta Oskorriren The Pub Ibiltarian oinarrituta, kalejira egin zuten, eta bestetik, lurreamendi egoitzako egoiliarrek

Poca Tripa eta Txilaba elkarteko kideen bisita izan zuten (bigarren irudia). Era berean, Tolosako Udalak banatu ditu inauterietako sariak. Karrozetan irabazleak *Egipziarrak* izan dira, eta sariak eskuratu dituzte ere *Argazki bildumak*, *Burbujitas*, *Milenioko ezkontza*, eta *Live Elton John-ek*. r.c.

Pedro Etxeberriak irabazi du I. Txakurkros proba

Guhau taldeak antolatutako lehiaketan 80 bat pertsona eta txakurrek hartu zuten parte

Rebeka Calvo

Jende ugari gerturatu zen herenegun goizean Trianguloa plazara I. Txakurkrosa ikustera. Guztira 80 bat kirolarik hartu zuten parte beren txakurrekin batera bi probatan banatuta; Gipuzkoako Txakurkros zirkuiturako puntuagarria den lasterketa nagusia, eta herri mailako lasterketa. Proba nagusia egin zutenek 10 kilometro inguru korritu zituzten eta Zumaiako Pedro Etxeberria eta Zura txakurra izan ziren helmugaratzen lehenak. Atzetik Zumaiako Mikel Etxeberria eta Gandalf sartu ziren, eta hirugarrena Arratzuko Iskander Rodriguez eta Koni txakurra izan ziren. Proba honetan guztira, 57 partaidek eman zuten izena.

Herri mailako proban aldiz, 19 pertsona eta txakurrek hartu zuten parte, eta Iñigo Cordal eta Orzi izan ziren lehenengoak, Eder Perez eta Bender bigarrena, eta Ion Perez eta bere txakurra hirugarrena. Lehen emakumezkoa Zestoako Vanessa Ugarte eta Txapi izan zen, bigarrena Zizurkilgo Itziar Lekuona eta Bimbo, eta hirugarrena, Donostiako Leire Zarracoa eta Sisha. Herri mailako lasterketa honek 4,5 bat kilometro zituen.



Pedro (lehen irudia) eta Mikel (bigarren irudia) Etxeberria izan ziren proba nagusiko lehen bi sailkatuak. R. CALVO



Herri lasterketako hainbat irudi. R.C.

k
kutxabank

**European
aurrezten.**

**Kutxabank
aurrezki
ideiak.**

Batzen ari dena ikusita ere, paskatuta aurreztiuz joan daiteke; eta errentagarritasun potentsekin, gainera. Bideaitzeko, ikusketak kanpoan egiteko, nahiz duzun beste edozein lanekin, bihur-etai baluan etorri daitezkeenerako.

**Kontsultatu
gure Aurrezki
Gida.**

Vital **kutxa** **bbk** **gehiago gero.**

Kirolak**↓ Kirol emaitzak****PILOTA**

LEHEN MAILAKO BINAKAKO TXAPELKETA	
Olaizola II-Beroiz	22
Gonzalez-Barriola	18
Bengoetxea VI-Apraiz	
Titin III-Merino II	22

Sailkapena

1. Olaizola II-Beroiz	10-0
2. Titin III-Merino	6-4
3. Irujo-Barriola	5-5
4. Xala-Laskorain	5-4
5. Bengoetxea VI-Apraiz	5-5
6. Berasaluze-Albisu	5-5
7. Lasa-Zubieta	3-7
8. Arretxe II-Begino	0-9

Hurrengo partidak

Mrtnez Irujo-Barriola	
Arretxe II-Begino	
Bengoetxea VI-Apraiz	
Aritz Lasa-Zubieta	

BIGARREN MAILAKO BINAKAKO TXAPELKETA

Jaunarena-Cecilio	22
Urrutikoetxea-Iza	11
Olazabal-Larrinaga	
Saralegi-Untoria	18

Sailkapena

1. Jaunarena-Cecilio	7-1
2. Olazabal-Larrinaga	6-2
3. Urrutikoetxea-Iza	5-3

Hurrengo partidak

Tainta-Argote	
Olazabal-Larrinaga	
Jaunarena-Cecilio	
Rico IV-Untoria	

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKOA 23. jardunaldia	
Aurrera-Tolosa CF	1-0

Sailkapena

1. Anaitasuna	47p
2. OIartzun	42p
3. Tolosa	42p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF - Pasaia	
--------------------	--

ERREGIONAL PREFERENTEA 21. jardunaldia

Lehen taldea	
Sanpedrotarra-Tolosa B	1-1

Sailkapena

1. Touring	50p
2. Ostadar	49p
3. Tolosa B	43p

Hurrengo jardunaldia

Mundarro-Tolosa B	
-------------------	--

Bigarren taldea

Intxurre-Eibartarrak	0-1
----------------------	-----

Sailkapena

1. Lagun Onak	40p
2. Getariako KETA	37p
3. Antzuola	37p
16. Intxurre	12p

Hurrengo jardunaldia

Getariako Keta-Intxurre	
-------------------------	--

ARARETO FUTBOLA

BIGARREN B MAILA 18. jardunaldia	
Atenea-Laskorain	2-1

Sailkapena

1. Pinseque	36p.
2. Ebrosala	36p.
3. Kirol Sport	33p.
13. Laskorain Ikastola	14p.

Hurrengo jardunaldia

Laskorain-Pinseque	
--------------------	--

HIRUGARREN MAILA 21. jardunaldia

Bilbo-Egintza	5-2
Ibarra-Mallabia	10-1

Sailkapena

1. Ibarra	54p.
2. Sestao	47p.
3. Aurrera Vitoria	43p.
9. Egintza Transportes Lakuntza	28p

Hurrengo jardunaldia

Egintza-Ibarra	
----------------	--

EUSKAL LIGA 21. jardunaldia

Hirukide-Goierri	5-3
Isu Leihoak-Eskolapioak	3-1

Sailkapena

1. Tolargi	46p.
2. Goierri	45p.
3. Tolosala Hirukide	42p.
7. Eskolapioak	27p.

Hurrengo jardunaldia

Eskolapioak-Eskoriatza	
Berri Otxoa-Hirukide	

SASKIBALOA

LEHEN MAILA 18. jardunaldia	
Bidebide-Lizuan	49-67

Sailkapena

1. Santurtzi	14-4
2. Seky.es	12-6
3. Leihoak Zarautz	11-7
4. Bidebide	11-7

*** Lehen fasea amaitu da, eta Bidebide Tolosak helburuak bete ditu, hau da, mailari eutsi dio. Orain igoera fasea hasiko da.**

AIZKORA

Urrezko Aizkoraren eta Zilarrezkoaren finalak Azeptian jokatu dira, igandean, 12:00etan

Otaño-Otaegi

Arrospide-Mugertza II Jauregi-Zubiaga Mugertza III-Larrañaga

SOKATIRA

GOMA GAINEKO MUNDUKO TXAPELKETA, ESKOZIAN 8x8 mistoak

1. Ibarra
2. Badaiotz-Abadiño
3. Sakana-Amair



Berria Pilota Txapeletako partidak jokatu ziren larunbatean Tolosako Beotibar pilotalekuan. A. IMAZ

Maidar Mendizabal ez da Kutxa Saria 2012ko finalerako sailkatu

Larunbat honetan Berria Txapelketaren kanporaketa jokatu du Aurrera Saiazek, Tolosako Beotibarren

Asier Imaz

Emakumeen Gomazko Paletako Kutxa Saria 2012ren final erdiak igandean jokatu ziren Urretxuko Ederrena pilotalekuan. Maidar

Mendizabal anoetarrak Arrieta-rekin osatu zuen bikotea. Aurkari bezala, Muneta-Bordagaray zituzen, eta amore eman beharrean aurkitu ziren. Partida gogorra eta lehiatua izan zen, eta 23-30 galduta, Mendizabal-Arrieta txapelketatik at gelditu ziren.

Kutxa Sariko finalak igande honetan jokatu dira Tolosako Beotibar pilotalekuan. Jaialdia 11:00etan hasiko da, eta lehenik Promozio Saria jokatuko dute Andueza-Ugaldek eta Garmen-

dia-Semperrek. Ondoren, maila nagusiko finala etorriko da. Alde batetik, Muneta-Bordagaray kanpxaratuko dira, eta bestetik, Housset-Serre.

Leku berean, larunbatean, Berria Pilota Txapelketaren hirugarren jardunaldiko kanporaketa jokatuko da, Aurrera Saiaz eta Huarteren artean. Hiru partida jokatu dituzte elkarren aurka, eta jaialdia 17:00ak inguruan hasiko da, nahiz eta ordutegia zehazteko dagoen oraindik.

Inauterien ostean partida galtzea tokatu zaio Laskorain Ikastolari

Labastida-Atenea taldearen aurka 2-1 galdu dute horitxoek, etxetik kanpo jokatu partidan

Unai Barriola Tolosa

Urteak joan eta urteak etorri, ligako partidarik zailenetakoa izaten da Tolosaldeko kirol talde guztientzat inauterien ondorengo norgehiagoka, eta estatistika horiei arrazoia emanaz esku hutsik bueltatu zen ikastolako taldea Arabara egindako bidaiatik.

Tolosarron egunerokoan parentesia izaten den aste zoroaren ondoren, entrenatzeko ia betarik gabe egin behar izan zuten Gasteizerako bidaia Javik gidatutako mutilek. Labastida-Atenea, sailkapeneko postu eroetan kokatuta egonik, aurkariaren erlaxa-

zio tiki hori aprobetxatzeko asmotan joan zen puntu premia larrian dagoen talde horitxo.

Dena den, Titanic, Vasconia Secret eta txaranga doinuak laster asko ahaztu zitzaizkien horitxoei, 40. segundorako aurreratu baitzen talde arabarra. Jokaldi zoro baten aldaratzean, Endikaren atea zulatatu zuten aurkariak, are az kanpoko jaurtiketa batekin.

Markagailuan atzetik izanagatik, ordea, Laskorainek ez zuen bururik galdu. Defentsan lanean serio jardun zuen, eta erasoan Murgiren aldrebeskeriak baliatuz Labastida-Atenearen atea estutu zuten. Honela, Iñigok berak aurkari bati iskin egin ostean burututako jaurtiketak, gasteiztarren atea zulatatu zuten atsedendira banako berdinketarekin iritsiz.

Bigarren zatiaren hasieran, ikastolakoek gogotsu ekin zioten lanari, eta aukera politak izan zi-

tuzten, baina aurkariaren atezainak bata bestearen atzetik ezeztatu zituen. Bi atezainak protagonista izan ziren 40 minutuetan, euren geldiketekin partidako onenak izan baitziren.

Minutuek aurrera egin ahala, ordea, ikastolakoek nekeak erasan zien, eta erasoan izandako balaio galera baten ostean etxekoak aurreratu ziren kontraeraso bikain bat errematatuz. Gasteiztarren bigarren gola zama handiegia izan zen Laskorainentzat, eta atezain jokalaria erabili arren, ezin izan zuten punturik eskuratu.

Azkenaldian defentsan izandako hobekuntzak erasoan ere bere fruituak emango dituen itxaropenez bueltatu ziren Gasteiztik Javi delegatua, Aitor eta Javi entrenatzaileak, Endika, Beñat, Gil, Murgi, Joniko, Ekhi, Asier, Xabi, Txiki, Lander eta Aratz jokalaria.

Ibarrak munduko txapelketa irabazi du talde mistoarekin

Goma gaineko munduko sokatira txapelketa iragan astean jokatu zen Eskoziako Perth hirian

Asier Imaz Ibarra

Eskoziako Perth hirian jokatu den munduko sokatira txapelketan, Ibarrak domina bat irabazi du, eta hori talde mistoarekin lortutako urrezkoa izan da.

Goma gaineko txapelketara Ibarra 26 tiratzaileekin joan zen asteazkenean, taldekako txapelketan parte hartuz. Kluben arteko lehiak ostegunean hasi ziren, ostiralean amaitzeko. Azken proban, mistoan, Ibarrako zortzikoak urrezko domina lortu zuen, Badaiotz-Abadiñori finala irabazi ostean. Hirugarren postuan, Sakana eta Amaiurgo tiratzaileek osatutako taldea gelditu zen.

Lander Otermin ibartarra esperientzia handiko tiratzailea da, eta berarentzat, iragan astekoa ez zen izan lehen munduko txapelketa, ez eta lehen urrezko domina ere. Ibarrako sokatira taldeak Eskozian egindako paperarekin gustura zegoen Otermin, «oro har, lan txukuna egin baitugu».

Eskoziako munduko sokatira txapelketan parte hartu duten talde guztien maila, altua izan dela dio Otermin, eta batez ere, txinatarrak aipatzen ditu: «Duela bi urteko munduko txapelketatik hona, jauzi handiena eurek eman dute».

Ibarraren aurtengo denboraldiko emaitzak kontuan hartuta, emaitza onenak gizonen 640 kiloton eta mistoan aurreikusten

ziren Perth-en. 640 kiloton zorte txarra izan zuen Ibarrak, multzo berean, txapelketako bi talde onenak tokatu baitzitzaizkion. Zazpi taldeko ligaxkan hirugarren sailkatu arren, aurrera ezin pasa gelditu ziren ibartarrak, dominen lehiatik at. Hala eta guztiz ere, talde mistoa gelditzen zen oraindik.

Pisu guztietako lehiak amaituta, ostiralean, mistoen txanda iritsi zen. Zazpi taldek hartu zuten parte txapelketa honetan, eta Ibarrak bi zortziko jarri zituen goma gainean. Hasieran, denak denek aurka tira zuten, eta ligaxka honetan, Ibarrak lehen postua lortu zuen. Amaiur-Sakanaren lehen taldea bigarren gelditu zen, eta Abadiño-Badaiotzen lehen zortzikoak, hirugarren. Laugarrenak, ibartarren aurkariak izango ziren, eta hauek txinatarrak ziren.

Lander Oterminen esanetan, finalerdia irabazteko garrantzitsua izan zen txinatarren jokoan ez erortzea: «Irabazteko argi genuen hasi eta bukatu egin behar genuela, tiraldi motza eta potentzia handikoa eginez». Bigarren finalerdia, Abadiño-Badaiotz eta Sakana-Amaiurren artekoa izan zen, «oso gogorra» gainera. Lehen taldeak lortu zuen garaipena.

Finalean edozer gerta zitekeela dio Otermin: «Lehen tiraldian pixka bat indarrak neurtzen ibili ginen bi taldeak, eta azkenean, gure aldera etorri zen. Bigarrenean, eurek ez zuten irabaztea beste aukerarik, eta hasieratik indartsu atera ziren. Eraso horri susten saiatu ginen, eta aukera ikusi genuenean erasoan hasi eta soka gurera ekarri genuen». Orduan, pozaren hasiera eta tentsioaren amaiera etorri zen, ospakizunen eskutik.



Ibarra 26 tiratzaileekin joan zen Eskoziara, pisu desberdinetan parte hartzeko asmoz. HITZA

Irudia ◉ Atletismoa



GARIKANO BIGARREN SAILKATU DA

Tolosako infantilek Euskadiko Kros Txapelketan parte hartu dute, Elgoibarren. Hirukideko Luisma-ri Garikano bigarren postuan sailkatu zen, eta asteburu honetan, A Coruñan jokatu den Espainiako txapelketan hartuko du parte. Elgoibarren,

Unai Iribar, Ainhoa Garikano, Eider Calahorra, Maddi Perurena, Irati Aldalur eta Zuriñe Iglesiasek ere lan bikaina egin zuten. Argazkian tolosarrak irribarretsu ageri dira, lan ona egiteaz gain, zozketako saskia ere irabazi baitzuten. HITZA

◉ Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



**ANTTON
IRIZAR IMAZ**

Otsailaren 28an hil zen, 55 urte zituela.

Eskerrik asko bñotzez, mina arintzen gerturatu zarenen guztiak, eta zuen-izatekin Antton oratu duzuenak. Herrian egindako omenaldi funkgiamiak luagarritzko indarra eman digu. Eskerrik asko bede garratz hau goiatzen duzuenak.

Anttonen sendia.

Hitzakelak, 2012ko otsailaren 28a



GOIZA	LAINTUTUA
ARRATSALDEA	OSKARRI
BEROENA	15°
HOTZENA	6°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialdea, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Agenda

DEIALDIK

■ **Anoeta.** Ekainaren 7an ospatuko dute Korputz eguna anoetarrek, baina horren inguruan ospatzen dituzten jaiak antolatzeko lanean hasi dira jada. Hurrengo bilera gaur bertan izango da, hilak 28, 19:00etan udal-etxean. Festa batzordeak herritar eta elkarte guztiak gonbidatu ditu bileran parte hartzera eta ekarpenak egitera.

■ **Tolosa.** Ohiko osoko bilkura egingo dute gaur, 19:30etik aurrera, pleno aretoan. Bertan hainbat mozio eztabaidatuko dituzte.

■ **Berastegi.** Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna dela eta martxoaren 9an afaria egingo dute Basurde elkartearen Igandea, martxoak 4, da izena emateko azken eguna, eta 943 68 31 51 (kontxi) edo 943 68 33 38 (Maria Jesus) telefono zenbakietara deitu behar da.

■ **Berrobi.** Martxoaren 9an ospatuko dute beren eguna Berrobiko emakumeek. Solastokin egingo dute afaria eta txartelak 25 eurotan daude salgai.

■ **Ikaztegieta.** Ikaztegietak emakumeek martxoaren 9an ospatuko dute Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna. Afaria egingo dute herriko ostatuan, eta txartelak martxoak 8, osteguna, baino lehen erosi behar dira 15 eurotan.

■ **Tolosa.** Kirikiño-Txantxangorriren 25. urteurrena dela eta, apirilaren 21ean, afari erraldoia antolatu nahi dute. Bertara nahi duen guztia dago gonbidatuta (taldeko kide ohiak, begiraleak, begirale ohiak, gurasoak, laguntzaileak...). Edozein galdera egiteko edota apuntatzeko email bat bidali behar da izen-abizenak zehaztuz helbide honetara: kirikinoaisialdia@gmail.com.

Irudia Tolosa



OTSAILEKO KANTUJIRA ERE EGIN DUTE

Tolosa Kantarik ez zuen hutsik egin. Hilero azken larunbatean egingo dute Kantujira, eta otsailekoa pasa den larunbatean izan zen. Hitzorduro bezala eguerdian bildu ziren Tontokalen, eta eztarriak


berotu eta gero kantuan hasi ziren, larunbateroko azoka girotz. Hurrengo hitzordua martxoa izango da; martxoaren 31n aterako dira berriz ere, kantuan Tolosako kaleetan. A.MAZ

Agurak



Urte askoan!

Arhane Lertxundi Romo (Amezketeta). Pasa den ostegunean hiru urte bete zituen. Zorionak amona, aitona eta osabaren partetik.



Urte askoan!

Beñat Argote Altuna (Tolosa).

Gaur 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat Berrobiko familiaren partetik!

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. Telefonoa: 943 67 36 49.

■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.

■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.



harpidedun **TXKOA hitza**

HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pare** du

Martxoak 4 • Igandea
18:00etan
Donostiako Ilunben

LAGUN ARO GBC
Unicaja
Asefa Estudiantes



Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95**



sarrerak